

Guadalupe Ortiz de Landazuri

(Madril 1916 – Iruñea 1975)

2011 Eka 16

Kimika Zientzietan doktoratua, 1942an San Josemaria ezagutu zuen eta honen bihotzeko poztasunak bereganatu zuen.

Jainkoaren deia sentitu eta gero Opus Deiren bidea jarraitzea erabaki zuen. Ordutik bere talentuak, zeuzkan baikortasuna eta komunikatzeko gaitasuna ere bai, helburu bakar

baterako jarri zituen: Jaungoikoaren nahia egitea.

1950 urtean Mexikora abiatu zen Opus Deiko apostolutzari hasiera emateko lurralde haietan. Bere sinismenak eta itxaropenak bultzatu zuten besteentzat bizitzera eta hainbat pertsona tratatzera.

1956 urtean Erromara joan zen San Josemariari laguntzera Opus Dei gobernu lanetan. 1960tik 1974a arte irakasle bezala lan egin zuen Ramiro Maeztu Institutuan eta Industri Ingeniariaren Eskolan.

Santuen Prozesuetarako Kongregazioan dago, aztergai, Positio super vita et virtutibus. 2001eko maiatzaren 25etik 2008ko urtarrilaren 17ra egin zen, Bartzelonan, elizbarrutiko Prozesu bat haren bitartekaritzaz, ustez, lorturiko mirari batez.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
guadalupe-ortiz-de-landazuri-2/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/guadalupe-ortiz-de-landazuri-2/) (2025
Abu 7)